

Altza / Herrera

Udako kanpaldia

altzako aisialdi taldeek udako kanpaldia antolatu dituzte, besteak beste, Kemetrontxo eta Argibidek.

Kementrotxok taldeak Albeiz aukeratu du. Kanpaldia ekainaren 30etik uztailaren 9ra arte izango da eta bertan zortzi eta hamalau urte bitartekoek parte ahal izango dute. Prezioa 16.000 pezeta izango da. Izena San Pablo parrokiako sotoan eman behar da, ekainaren 2an, 18.30etatik 19.30etara, edota ekainaren 3an, 16.00etatik 18.00etara.

Argibide taldekoak, aldiz, Bizkaiko Orozkora joango dira uztailaren 9tik 17ra bitartean. Kanpaldi hau



Aisialdi taldeek hainbat ekintza antolatu dituzte udarako.

hamabost eta hamasei urteko gaztetxoentzat izango da eta prezioa, 12.500. Argibiden

izena emateko 943352399 telefonora deitu behar da, ekainaren 12a baino lehen.

Mendi irteera Pirinioetara

Mendi-Zaleak taldeak irteera egingo du datorren asteburuan, ekainak 3 eta 4, Pirinioetako Pont d'Espagnera. Hirumilako hau igotzeko asmoa dute, Wallas aterpean egon ondoren. Irteera San Luis plazatik egingo da eta prezioa 3.500 pezeta da bazkideak direnentzat eta 3.700 ez direnentzat.

Sevillar jaia: okerrak zuzenduz

Orain bi aste sevillar festari buruz kaleratutako artikuluan bi hankasartze egin genituen. Batetik, Rebutito edariaren ordez, Rebajito idatzi genuen. Bestetik, jaiaren antolaketa lanetan ibilitako Manoli eta Jose Mari sevillar dantza irakasleak zirela esan genuen. Okerra zuzendu beharra zegoen eta hala xe egin dugu.

Alemaniar festa Gaiztarron

Aste buru honetan alemaniar jaia egingo da Herrera-Bidebietan, Gaiztarron hain zuzen ere. Antolatzaileek alemaniar ohiko jakiak prestatu dituzte: "codilloa", saltxitxak, purea eta "sareskrant" izeneko pastela. Edaririk ere izango da, hala nola, alemanitik eta europako beste herrialdeetatik ekarritako garagardoak. Produktu horiek dastatu nahi dutenek Gaiztarroko taberna eta jatetxeetara jo dezakete.



Atsedenerako ekipoa



Dendak

Oheak - Koltxoiak - Kanapeak
Somierak - burukoak
Edredoi nordikoak - Azal nordikoak
Mandireak - Osagarriak

Ronda 6 GROS - Tfnoa.: (943) 320358

SAN CARLOS BORRROMEO

- Emakume eta gizonezko jantzigintza eta mihisedenda.
- Bainujantziak eta bikiniak denontzat.
- Donostiako preziorik onenak.

DENDA BERRIA!!!
Aita Larroka kalea 12
Tfnoa.: 943-271030

Olartzun kalea 7 • Tfnoa.: 943-284547



Marino Tabuyo, 6
Tfnoa.: (943) 32 15 94
DONOSTIA

Laskorain, 7
Tfnoa.: (943) 65 49 16
Faxa: (943) 65 17 27
TOLOSA

ELVIRA

- Jaso eta itzuli 48 ordutan, dohain.
- Lehor-garbiketa

isaketa -garbiketa

Intxaurren 62 ☒ (943) 28 68 16